



Iraunkortasunabuletina

Asteazkena, 2024ko uztailak 10

Alea: 15

GRADUONDOA



Hona hemen gure lehen promozioa!

Joan den ostegunean diplomak banatzeko ekitaldia egin genuen, Mondragon Unibertsitatearekin eta Deustuko Unibertsitatearekin batera, "[Integrazio Estrategikoa, 2030 Agendaren Jarraipena eta Komunikazioa](#)" Unibertsitate Espezialista tituluaren 1. Edizioa ixteko. 2024/25 ikasturtean egitea gustatuko litzaizuke? Kontsultatu informazioa [hemen](#).


KONGRESUA

EHUko Ikasleen VII. Kongresua: bidali zure proposamena

Mundua eraldatzea amesten duzu eta argi duzu zure GrAL-ak ekarpen txiki bat egiten diola ingurunearen eraldaketa sozialari, ingurumenekoari eta ekonomikoari? [Aurkeztu ezazu](#) zure ekarpena, bizi ezazu esperientzia hau eta sari bat irabazi dezakezu.



CAMPUS BIZIA LAB



CBL 2024/25 deialdia: zure eskaera aurkez dezakezu

IIP, TEKAZEL eta ikasleek osatutako lantalde bila gabiltza, unibertsitatearen beraren iraunkortasun-erronka baten inguruko proiektuak garatzeko eta EHUagenda 2030en helburuei erantzuteko. Kontsultatu informazio guztia [hemen](#). Zuen zain gaude!



ALBISTE INTERESGARRIAK

Gizarte-inpaktua neurtzeko azken aurrerapenak eta erronkak EHUko Udako Ikastaroan izena emateko epea zabalik

Ikastaroa irailaren 9an eta 10ean egingo da, Donostian. Haren helburua da gizarte-inpaktua neurtzeko eta kudeatzeko nazioarteko praktika aurreratuen ikuspegi panoramikoa eskaintzea, bai eta erregulazio eta joera berrien garapen berrienak partekatzea ere.

EHUko bi ikaslek aipamen bereziak lortu dituzte Unibertsitateko Berrikuntza Iraunkorreko Sarietan

Vocento eta [U4Impact](#) elkarteek antolatutako sari hauen lehenengo edizioan, Ane Bueno Viso, "Biomasatik datozen azukreetatik eratorritako bioomeno baten ekoizpen integratua" izeneko bere GrALagatik, eta Xabier Larrayoz, "Jolas patologikoko arriskuen detekzio goiztiarrari aplikatutako ikaskuntza sakona" izenekoagatik.

Garapen iraunkorra Europar Batasunean: EBren testuinguruan GIHetara egindako aurrerapenen panorama (2024 edizioa)

EBko GJHen adierazle guztietan oinarritzen den txosten hau argitaratu du Eurostatek. Gainera, 2024ko edizioak Europar Batasunari buruzko atal bat ere badu, eta Eurostaten estatistika ofizialetan ikus daitekeen Ukrainako inbasio errusiarraren eragina aztertzen du.

HURRENGO EKITALDIAK

Ez galdu!

2024/09/08–2024/09/10. [VI annual International Higher Education Summit Conference \(HES\)](#).

2024/10/10–2024/10/11. [2nd Transatlantic Symposium on Sustainable Development in Higher Education](#).

2024/10/26. [EHUko ikasleen VII. Biltzarra Gure Gradu Amaierako Lanek \(GrAL\) mundua aldatzeko balio dute](#)

2024/10/23–2024/10/24. [Klima Aldaketa eta Itsasertzari buruzko mugaz gaindiko VI. Kongresua](#).

NEWSLETTER HAU ZURE NEWSLETTERRA DA

2.500 harpidetu baino gehiago ditugu dagoeneko. Buletin honetan jasagarritasunarekin zerikusia duen edukiren bat ezagutzera eman nahi baduzu, idatziezaguzu iraunkortasuna@ehu.eus helbidera.